

zitzakeen Arabia Saudi, gailur arabiar bat (Djedda-n) antolatzen gehien ahalegindu ziren Estatuak izan ziren orduan. Abuztuaren 5eko presidente amerikarraren tropak bidaltzeko erabakiak galerazi zuen gailurra, kontrako aldean posiziona arazi zuen Egipto, eta datorren gerra honen detonagailua izan zen.

Gerra nahi egiten zen edo, batzuek edo-eta besteek, gaizki kalkulatu dute? Soegile batzuren ustea: Husseinek gaizki kalkulatu du. Bushek, aldiz, gerra nahi du. Nazioarteko enfrontamentuan, ekonomia hondaturik, eta zinema alde batera, horixe delako egun bera nagusi den arte bakarra. Nazioarteko orden berrian inork ez dezala bere guztiahalduntasuna dudatan ezar. Gerra horretatik «nazio arabiarra» ahulduta, eta bera, eta Israel, indartuta irtengo direlako.

Gerra inork ez du irabaziko —herri guztiek, eta irakiarrak eta palestinarrek batipat, galduko dute—, baina, azkeneko batean, arma nuklearrak erabakiko du. Eta hori ere, bakarrik amerikarrek —Israelek erabiltzeak inplikazio gehiegi izango lituzke— erabil dezakete. Ustegabeko, prebenitu ezin dajitezkeen ondorioek bakarrik geldiaraz lezakete arrano amerikarra. Baina orain arteko logika beste bidetik doa. Eta hemen, hipokresiaren ildotik.

LITUANIAN gauzak biziki okertu dira. Gorbatxovek independentistez esan du: «Kontsigna demokratikoen estalkiaz herriaren interesen kontra orden burgesa berrezarri nahi dutenak». Zaborra da, baina, hitz horiezaz, eta errepresioaz, eta —berrez datorren— ekonomi krisiaz lortzen ari da, beldur ginenena: orain dela urtebete (ia) ahobatez azaltzen ziren lituaniarrek zati daitezzen.

Pablo Sastre

Balearren berri

GAURKOAN kondatu besterik ez dizuet egingo; ondorioak ateratzeak ez bait du batere trabarik. Abenduaren 27ko *El Día 16 de Baleares* egunkariak, berri hau eman zuen bere plauma nagusian: «*El Govern (= balear) prima el catalán y sólo usará el castellano como excepción*». Eta, azpi-titulu gisa beste hau: «*La lengua oficial de España deberá solicitarse expresamente*».

Katalaneraren defentsa, hitz batez, gogorki egingo bide da hemendik aurrera, «Printzipatu»an baino.

Ez nuen dekretua bera osoki eta bere jatorrizko testuan irakurtzerik izan («*Butlletí Oficial de la Comunitat Autònoma de les Illes Balears*» delakoan, alegia). Baina *El Día 16*ean emandako zehaztasunek ez dute zalantzarako atekarik uzten.

Has gaitezen.

Hizkuntz arau berriok Balearretako *Administrazio Autonomo osoa* ikutzen dute; eta aplikazioa Balearretan *bizi diren guztiei* dagokie. Harreman horiek derrigorrez katalanez egingo dira aurrerakoan. Kitto.

Salbuespen bakarra: hiritarrak espreski gaztelaniaren erabilpena eskatzea.

Administrazio Autonomoaren *idaz-makinak eta programa informatiboak* katalanera egokituko dira. Zehazki: Belgikako lurraldetasunaren aurrean gaude, baina «*communes à facilités*» delakoen modura (Furonetan, adibidez).

Gomendioen artean, bestalde, hauxe azpimarratu dute: *Administrazioan lanean diarduten kargu gorenei* («a los altos cargos de la Administración») argi-eta-garbi eskatzen zaie beren hitzaldi eta bileretan *katalaneraz* mintzatzea.

Errotulazioari buruz, berriz, hau legeztatu da: «Los rótulos de oficinas y despachos, las cabeceras de documentos, sellos y matasellos, se redactarán en catalán». (...)

Argitzapen honek, azkenik, ongi adierazten du legearen helburua: «(en caso de reproducción de un texto en castellano), se evitará la doble versión *simultánea*».

Horretan guztian ez dago elebikuntza orokorrik, ez elebitasun orekaturik, ez erdibide diglosikorik, eta ez antzekorik ezer. Horretan guztian nabarmen dago *katalanera* Balearretako hizkuntza *normala eta beharrezkoa* lortzeko proiektua.

Besterik erantsiko nuke, oso gogoz. Baina ez dut egingo. Bego berria bere horretan. Eta ulertu nahi duenak, uler beza.

